

## ARINTZEAREN 2.FASEA ZER EGIN DEZAKEGU?

2.fasea

**Maiazaren 25etik  
ekainaren 7ra**

**Ez dago ordutegirik** biztanleriarentzako baina lehenasuna izango dute 70 urtetik gorako pertsonak eta arrisku-taldeek ordutegi honetan:

**Goizeko 10etatik 12etara  
Arratsaldeko 19etatik 20tara**



Hileta-beilatokiek, kultu-lekuek eta hileta zeremonia zibil edo erlijiosoek parte-hartzaileen gehieneko muga zabaltzen dute:

Beilatokiak :

- 25 pertsona aire zabaleko espazioetan
- 15 pertsona espazio itxietan

Hildakoaren ehorzketarako edo errausketarako segizioan :

- 25 pertsona senitarteko eta hurbilekoen artean.

Kultu-lekuak :

- Ezingo da edukiaren %ko 50 baino gehiago bete.

### BESTE ALDAKETA GARRANTZITSU BATZUK 2. FASEAN:

- Gehienez 10 pertsonako taldeetan ibilaldiak egin daitezke (Mendia, naturguneak, antolatutako berdeguneak, etab.)
- Hondartzara joan daitezke aisialdirako (bainatu, eguzkia hartu, paseo bat eman, kirola egin). Gehienez 15 pertsonako taldean.
- Bigarren etxebizitzara joan.

### KASU GUZTIETAN:

- Jarduera ohiko bizilekua dagoen lurralde historikoan egingo da.
- 2 metrotako distantzia errespetatuz.
- Segurtasun-tartea ezin bada mantendu maskara erabili.
- Eskuak etengabe garbitu edo hidroalkoholiko gela erabili.

**Gizarte-bilerak etxeetan, lokal pribatuetan nahiz erabilera publikoko lekuetan egin daitezke, 15 pertsonako mugarekin, ezarritako distantzia fisikoa eta norberarenganano babes-arauak errepetatuz.**





# JARDUERAK



# KULTURA ETA AISIALDIA

## MUSEOAK:

- Ekainaren 1etik aurrera irekiko dira, %50eko edukierarekin.


## KULTUR GUNEA, ANTZOKIAK ETA ZINEMAK:

- Edukieraren herenarekin eta gehienez ere 50 pertsonako mugarekin
- Espazio irekietan, edukieraren heren bat eta gehienez 400 pertsona. Publikoa eserita egon beharko da.



## MERKATARITZA ESTABLEZIMENDUAK:

- Merkataritza establezimendu eta lokal guztiak irekiko dituzte edukiaren %eko 40arekin.
- 65 urtetik gorakoentzako lehentasunezko arreta-ordutegi bat ezarri beharko dute.



## KIROL-INSTALAZIOAK: Hitzordua eskatu beharko da

## TURISMO AKTIBOA (mendi-ibiliak eta antzekoak)

- Gehienez 20 pertsonako taldeekin egin ahal izango da.

## TABERNAK ETA JATETXEA:

- Lokalaren barruan, kontsumitu daiteke edukieraren %50 arte.
- Mahaian edo elkar-mahaietan eserita.
- Ez da autoserbitzurik onartzen.



## ELKARTE GASTRONOMIKOAK ETA TXOKOAK:

- Gehieneko %eko 50eko edukierarekin ireki ahal izango dira.

## 2. FASEA GIZARTE ZERBITZUEN ARLOAN

### MENPEKOTASUNAREN BALORAZIOA (MBB ETA RAI)

- Balorazio berriak etxebizitzetan (1.fasea hasita)
- Pixkanaka hasiko dira gradu berrikuspenen balorazioak egiten.



### ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA

- Zerbitzuaren jarraipena etxebizitzetan (NBEak eta testak)
- Paseatzeko zerbitzua berriro hasiko da, baimendutako ordutegietan (zerbitzu hau eskaintzen den udalerrietan)



### EGUNEKO ZENTROAK

- Itxita jarraituko dute.
- Zentroak egokitu eta gainbegiratuko dira pixkanaka 3.fasean irekitzeko asmoarekin.

### EGOITZA ZENTROAK ADINEKOENTZAT

Bizikidetzako eta taldeko normaltasun berria:

- Moduluka sektorizatuta
- Talde txiki iraunkorrak
- Segurtasun distantziak mantenduz
- Irteerak terrazetara eta lorategietara

Posible den zentroetan, aurretiko hitzorduarekin, EGOILIARREN ETA BEREN FAMILIARTEKOEN ARTEKO IKUSIZKO KONTAKTUA aldeztuko da kanpoko espazio komunitatik.

### ALDI BATERAKO EGONALDIAK

Zerbitzurik gabe 4. Fasea bukatu arte



### PRESTAZIO EKONOMIKOAK

Jarraipena telefonoz, udalaren zerbitzuen bitartez

### TELEZAINTZA

TLF: 900 43 43 43

Gizarte Zerbitzuetako erabiltzaileentzako Telefono Zerbitzua